


Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreko jarduera % 0,3 jaitsi da 2021eko lehen hiruhilekoan

Etxegintzaren azpisektorea % 0,5 igo da, eta Obra zibilarena % 5,7 jaitsi

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren jarduerak % 0,3ko urte arteko jaitsiera izan du 2021eko lehen hiruhilekoan, termino nominaletan, egutegiaren eraginak atera ondoren.

Eraikuntzaren sektorearen urte arteko jaitsiera, hiruhileko honetan, *Obra zibilaren* jaitsierak eragin du, urte arteko % 5,7ko beherapena izan baitu, zeren *Etxegintzak* % 0,5eko igoera izan baitu.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte- arteko aldakuntza-tasa (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

2021eko lehen hiruhilekoko sektorearen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, urtaroen eragina zuzenduta, % 2,8ko hiruhileko arteko hazkundea ikusten da. *Etxegintzak* hiruhileko arteko % 3,2ko bilakaera positiboa izan du, eta *Obra zibilak* % 1,1 egin du behera aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azkenik, eta urtaro-eraginik gabeko terminoetan, Eraikuntzaren sektorean lanean aritzen diren enplegatuen kopurua % 0,1 igo da 2021ko lehenbiziko hiruhilekoan, 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Eraikuntzaren koiunturaren Indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak. I/2021

	Zuzendua		Desestazonizatua	
	I 2021/I 2020	At/At-1	I 2021/IV 2020	IV 2020/III 2020
Produkzioaren Indizea	-0,3	-0,3	2,8	1,3
Eraikuntza	0,5	0,5	3,2	2,6
Obra zibila	-5,7	-5,7	-1,1	-7,0
Landunen Indizeak	-	-	0,1	-0,6

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuen definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaian duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#). ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **93,3ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62